

A22 - Industria diseinua eta bere aplikazioak ezagutzea

Ezagutzea nolako den industria diseinuko eta produktuen garapenerako prozesua, produktu errealen adibideak ikustea...

Ikasurtea

1. Batxilergoa
2. Batxilergoa

Data

2024ko otsaila - apirila

Lantzen diren irakasgaiak

Lanbide orientazioa
Teknologia
Teknologia industrialia

Jarduera mota

Aldez aurreko prestakuntza
ikasgelan
Adituaren bisita eskolara

Hizkuntza

Euskara

Irismen geografikoa

Bizkaia

Jarduera ematen duen erakundea

Maier S.coop.

Curriculumaren edukiak

- Adierazpena, komunikazio grafikoa eta diseinua.
- Prozesu industrialia ezagutzea enpresa errealean.
- Materialak, kalitatea, laborategia.

Zer ikasten dute ikasleek?

- Ikasgai baten aplikazio praktikoa.
- Enpresak zelan aplikatzen duen ezagutza arlo teknologikoan.
- Lan taldea.
- Irudimena.
- Hausnarketa.

Baliabideak

Egintzaren ezaugarrien arabera zehaztuko dira.

Garapena

Ikastetxeak aukeratzen duen ikasgai baten inguruan maierreko profesional batek hitzaldi bat ematen du, baita ere izan daitekeena erronka bat.

1. ARDUERA PRESTATZEKO BILERA: Hizlaria irakasleekin biltzen da, edukiak ikasleek aurretiaz gaiaren inguruan dituzten ezagutzetara egokitze eta, besteak beste, hitzaldiaren ikuspegia zehazteko.

2. ADITUAREN HITZALDIA: Hizlaria zentrorra doa eta produktuen marrazketaren bidezko diseinu-prozesua azaltzen du. Adibide errealean bidez, ikasitako irakasgaiak industrian duen aplikazio erreala ikusarazten du. Horretarako, produktu fisikoak eta bideoak eramatea ditu. Gainera, bere ibilbide profesionala, bizipenak, enpresan egiten duen lana eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak azaltzen ditu.

3. IKASLEEN BALORAZIOA: Ikasleek jarduerari buruz egiten duten balorazioa.